



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lau apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

1.ERABAKIA: HERRIAREN 2024ko HASIERAKO AURREKONTUAREN BOZKATZEA

(7.1 nomenklatura – Aurrekontuei buruzko erabakiak)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, honek baimena eman diezaiokeela kapitulu batetik besterako kreditu mugimenduak egiteko (langileria gastuez aparte), izan inbertsioetan nola funtzionamendu ataletan, atal hauetako bakoitzaren, gastu errealen % 7,5 gainditu gabe. Halakoetan, kreditu transferentziak agintaritzaren erabakiz egiten dira, zeinak legezkotasun kontrolera igorri behar baitira. Diruzainari ere erabakiaren berri eman behar zaio eta Herri Biltzarraren saiorik hurbilenean horren berri ere eman beharko da. Herriaren kudeaketa errazteko, biltzarkideei proposatu die halako diru transferentziak egiteko baimena ematea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

BOZKA 2024ko kontu ekitaldiko Hasierako Aurrekontuko proposamen berriak:

Inbertsioak

Gastuak: 1 476 213,00
Sartzeak: 1 521 699.30

Funtzionamendua

Gastuak: 2 173 444.00
Sartzeak: 2 173 444.00

Aurrekontu orokorra:

Inbertsioak

Gastuak: 1 613 701.00 (137 488.00 RAR)
Sartzeak: 1 613 701,00 (92 001.70 RAR)

Funtzionamendua

Gastuak: 2 173 444.00
Sartzeak: 2 173 444.00

BAIMENA EMAN DIO

Auzapezari kapitulu batetik besterako kreditu mugimenduak egiteko (langileria gastuez aparte), izan inbertsioetan nola funtzionamendu ataletan, atal hauetako bakoitzaren, gastu errealen % 7,5 gainditu gabe.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balizko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.